

Zientzia, lehen lerrora

«Pandemiak mundua hankaz gora jar dezaketen izakiak daudela erakutsi digu»

Galderak pilatu eta ziurtasunak desagertu diren garai hauetan, Miren Basaras mikrobiologoak hamaika elkarriketa eskaini eta hainbat artikulatu idatzi ditu, mundua aztoratu duen gaitzaren gainean ahalik eta argi gehien jartzeko. EHUKo Medikuntza Fakultateko bulegoan hartu gaitu, ezbairik gabe urteko gai garrantzitsuena denari buruz luze berba egiteko.

Euskal Herrian, lehenengo covid-19 kasua otsailaren azken egunean detektatu zen, baina gero ikusi da birusa askoz lehenagotik zebilela hemen. Nola ez zen lehenago antzeman?

Beste herrialde batzuetan ere berdin gertatu da. Europan orain ikusten ari da kasuistika hori lehenago heldu zela, duela urtebete baino lehenago Europako hainbat herrialdetan lehenengo kasuak gertatu zirela. Atzera begiratuta, ikusi da ospitale batzuetan bazeudela paziente batzuk pneumoniarekin eta ez zekitela zein zen hura eragin zuen mikroorganismoa. Hori beste kasu batzuetan ere gertatzen da, beti ez da detektatzen eragilea. Arazoa izan da birus berri baten aurrean gaudela eta birus hori hedatzen joan dela. Eta immunitate txikia dagoela, hori da arazo nagusia. Baina lehen kasuak berandu atzematea ez da horrenbeste akats bat.

Martxoaren 14an itxialdia agindu zuten, eta bi astea kasu kopuruak goia jo zuen, biru-

**MIREN
BASARAS IBARZABAL**

MIKROBIOLOGOA

Birus batek gure bizitza astindu duenean, gizarteak zientzian bilatu ditu erantzunak.

Eta Miren Basaras irakaslea premia horri erantzuten aritu da hasiera-hasieratik.

Iker Bizkarguenaga

sa oso hedatuta zegoen seinale. Zer gertatuko zatekeen itxialdirik ezarri izan ez balitz?

Espero zitekeena da askoz hildako gehiago egotea. Itxialdia une horretan ezarri zen. Lehenago ezarri behar zen? Beharbada bai. Lehenengo kasuak agertu izan zirenean? Agian. Ematen zuen kasu solteak zirela, eta gero ikusi zen ezetz, oso kasuistika handia zegoela, transmisio komunitario baten aurrean geundela. Zentzu horretan, ematen du arazo handia dagoela transmisio komunitarioa dagoela esateko, bigarren olatu honetan ere hori ikusi dugu. Denbora guztian ibili izan dira kasuen trazabilitatea lortzen ari garela eta transmisio komunitarioa ez dagoela esaten. Transmisio komunitarioa, kasuak agertzen direnean eta nondik datozen ez dakigunean ematen da. Une honetan transmisio komunitarioan gaude, udan ere bageunden. Badirudi beldurra ematen duela esateak, eta uste

dut hori gertatzen denean neurri zorrotzak hartu behar direla.

Zenbait adituk adierazi dute birusak jokabide bitxia duela. Adibidez, jende kopuru txiki batek kutsatze gehienak eragiten ditu, eta, aldiz, kutsatu askok ez dute ia kutsatzen.

Beste birus batzuekin ere ikusten ditugu horrelako portaerak, non bakoitzak duen karga bikoaren arabera aukera gehiago izango dituen ondoko pertsonak kutsatzeko edo ez. Baina, kasu honetan, hori guztia pixkanaka ikasten joan gara, hila-beteak aurrera joan diren heinean. Adibidez, hasieran uste zen sintomadunak zirela batez ere kutsatzen zutenak, gero ikusi da asintomatikoek ere kutsa dezaketela, bereziki birus kantitate handia badute. Badaude hainbat mikroorganismo antzeko portaera izan dezaketenak; bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta hemen ere ikasten joan gara.

Sintomei dagokienez, arnas aparatuari eragiten dizkiotenen nabarmentzen dira, baina beste batzuk ere eragiten ditu.

Ohikoa da birus batek sintoma eta kalte desberdinak eragitea? Badaude birusak sintoma desberdinak eragiten dituztenak, baina hemen arazo nagusia da guk ez daukagula inolako oroi-menik birus honen kontra, eta oso aproposak garela birusak edozein kalte eragiteko. Eta hori da birus honek egiten duena, ez bakarrik arnas bideko patologia eragin, nerbio sistema zentralakoa, gibelakoa, bihotzekoa ere bai... Esan bezala, hori beste birus batzuek ere egin dezakete, baina, arazoa da birus honek ez duela inolako presiorik gugandik. Etorkizunean ikusiko dugu zer gertatzen den, presio bat dagoenean bera ere moldatuko da, modu batera edo bestera.

Ohiko katarro asko koronabirusek eragindakoak dira. Honek ere bilakaera hori izan dezake? Katarro soil bat izatea?

Agian bai, baina horretarako denbora behar da. Ez da hurrengo urtean izango, immunizazio maila altu bat izan behar dugu. Eta ez da beharrezkoa bakarrik guk immunizazio maila altua izatea, birus horrek aldaketarik ez izatea, ez mutatzeko behar da. Aldaketarik ez izatea eta bere birulentzia txikitzen joatea. Baina hori denborak esango du.

Mutazioak, oro har, birusa ostalarian egokitze izaten direla esan ohi da, eta ez dutela zertan kaltegarriak izan. Hala gertatuko al da?

Hori ez dakigu. Mutazioak izan daitezke kaltegarriagoak, edo ez. Gu kutsatzen gaituzten birusei ostalaria ez hiltzea interesatzen zaie, zeren ostalaria hiltzen bada, beraiek ere akabo. Logikoa izango litzateke gure egoerara moldatzea, baina inork ez daki nola eboluzionatuko duen kaltegarritasun horrek. Esaterako, urtero heltzen zaizkigun gripearen birusak desberdinak dira, batzuetan mutazio txikiak izaten dituzte, beste batzuetan handiagoak, batzuetan ez da hain kaltegarria eta beste batzuetan kaltegarriagoa izaten da. Pandemia honek erakutsi digu gauza garrantzitsu bat: uste genuen guk kontrolatzen genuela mundua, baina hori ez da egia, badira beste izaki batzuk mundua hankaz gora jar dezaketena, kasu honetan koronabirus hau. Eta gu haren mende gaude. Eta ez da izango bakarra.

Itxialdiak lortu zuen birusaren intzidentzia asko apaltzea. Baina gero arintzea etorri zen, eta «normaltasun berria». Azkarregi pasa ginen nolabaiteko normaltasun horretara?

Datuek adierazten zuten kasu positiboan jaitsiera nabarmen bat gertatu zela, eta nik uste dut batzuek pentsatu zutela jada guztiz kontrolatuta zegoela. Eta hori akats bat izan zen. Udan kasu batzuk bagenituen eta hala ere lasaitu ginen. Egia da ezin dugula denbora guztian konfinatuta egon, baina pandemia honetan ikusi dudana da sarritan ez dela pedagogia egin, ez direla gauzak argi azaldu. Ikusi ditut beste agintari batzuk, nazioartean, askoz ere neurri zorrotzagoak hartzen ari direnak, eta mezua askoz ere argiago ematen ari direnak. Alemanian, Australian, Zeelanda Berrian... Melbourne itxi zutenean, argi eta garbi galdetu zuten: «Zer

nahi duzue, orain arintzea edo beste hiru astez itxarotea eta ia kasurik ez dagoenean hastea?». Eta jendeak ikusi zuen hobe zela itxarotea. Mezu argiak ematen direnean, dibulgazio lan handi bat egiten denean, gizartea zurregana ekartzen duzu. Uste dut hori garrantzitsua dela.

Agian falta izan da aitortzea gauza asko ezezagunak direla...

Bai, falta izan da. Ezin dena da gauza biribilak esan, ez badakizu zer gertatuko den. Une hone-tan, denok espero dugu hirugarren olatua, horren zain gaude. Hirugarren olatua helduko da, hori argi dago, ikusten ari gare-lako datuak ez direla onak, kasu asko daudela, intzidentzia meta-tua handia dela, baina zerbait egin beharko dugu hirugarren olatua hain gogorra ez izateko. Zer nahi dugu, gogorra izatea, oso gogorra izatea edo ahalik eta arinena izatea? Ba horren arabera jokatu beharko dugu.

Seroprebalentzia inkestaren arabera, Hego Euskal Herrian jendearen %9,6k izan du covid-19a, baina atentzioa ematen du orain antigorputzak dituzte-nen kopurua 2-3 puntu txikia-goa izatea. Horrek esan nahi du azkar desagertzen direla?

Hor hainbat faktore daude. Fak-tore bat da erabiltzen ari garen probak zer sentikortasun duen; posible da proba horrek antigor-putz maila guztiak ez detekta-tzea, agian maila altuak detekta-tzea baina txikiak ez. Dena den, antigorputzen desagertzea hori beste gaixotasun batzuetan ere gertatzen da, baina garrantzi-tsuena da antigorputzak desa-gertzeak ez duela esan nahi ez gaudela immunizatuta. Posible da antigorputzen maila jaisten joatea, baina oroimen zelulak hor geratzea. Horiek zer dira? Zuk birus batekin kontaktua



Marisol RAMIREZ | FOKU

izan baduzu, zure sistema im-munea aktibatu da eta birus ho-rrren kontra zenbait substantzia jariatzen hasten da. Batzuk anti-gorputzak dira, eta horiek den-borarekin jaisten joan daitezke, baina oroimen zelulak zure bar-nean gelditzen dira, eta birusa-rekin bigarren kontaktu bat du-zunean berehala aktibatzen dira, eta zure erantzun immu-nea askoz azkarragoa eta poten-teagoa da. Hemen arazoa da bi-garren kontaktua duzunean birusa desberdina izatea. Berrin-fekzioak gertatu direnean, biru-sa aldatu delako gertatu dira, le-hen aipatutako mutazio horiek.

Ikerketek diote txertoak era-ginkortasun handikoak direla; orain zer da ezagutzeko falta den gauzarik garrantzitsuena, eraginkortasunaren iraupena? Lehenik eta behin, orain txerta-



«Hilabete hauetan ikusi dudana da sarritan ez dela pedagogia egin, ez direla gauzak argi azaldu. Eta hori garrantzitsua da. Mezu argiak ematen direnean, dibulgazio lana egiten denean, jendea erakartzen duzu»

tzen ari diren pertsonak ea albo erreakzioak dituzten aztertzen ari da, eta, baita ere, zenbat anti-gorputz sortzen dituzten. Biga-rren dosi bat jaso beharko dute lehenengoa hartu eta hilabete-ra, eta horren ondoren berriro aztertuko da antigorputzak sor-tu dituzten edo ez. Espero da esan duten eraginkortasun hori mantentzea, zeren gauza bat da boluntarioetan gertatzen dena, eta beste bat milioika pertsona txertatzea. Eta gero hainbat gau-za ikusi beharko dira: antigor-putz maila hori denboran man-tenantzen den edo jaisten den, adibidez. Baita ere, pertsona ho-riek birusarekin kontaktua du-ten edo ez. Orain dauden txerto-ek, bereziki RNA motakoek, Pfizerrenak eta Modernarenak, ez dirudi kutsatzea oztopatzen dutenik. Hau da, pertsona ho-riek kutsa daitezke eta birusa

transmiti dezakete, txerto ho-riek ez dira, esaten den moduan, esterilizatzaileak, ez dute ber-matzen ez kutsatzea, ezta ez transmititzea ere. Hori aztertu beharko da, eta baita ere pertso-na horiek kutsatzean zer sinto-ma dituzten, haien erantzun immunea... Oraindik ikusi behar diren gauza asko daude.

Edonola ere, txertoaren eragi-na ez da bat-batekoa izango eta litekeena da hurrengo urtean ere neurriekin jarraitzea, ez?

Bai, ez delako kantitate nahiko-rik helduko ia denok txertatuta egoteko, ez dugu lortuko talde immunitatea berehala. Ikusi be-harko dugu nola heltzen diren eta zer kopururekin joka deza-kegun, eta txertatzen den per-tsona kopuruaren arabera ari-nago edo astiroago joango gara talde immunitate hori lortzen. Ematen dituzten datuen arabe-ra, ez da espero hurrengo urteko bukaerara arte lortzea, Eta mun-du osoari begiratzen badiogu, pandemia ez da kontrolatuta egongo munduko biztanleen %60tik gora txertatu arte.

Gaixotasun hau zoonotikoa da, animalia jatorria du, birus eta gaixotasun berri gehienek be-zala. Hurrengo urte edo hamar-kadetan halako pandemiak ugaritu daitezkeela uste duzu?

Beti egon da pandemia arriskua. Izan ere, pandemia desberdinak ezagutu ditugu. Pandemia izan da GIBarena, C hepatitisaren bi-rusarena... baina transmititzeko beste moduak dituzte, kontrola-tzeko errazagoak. Arnas bidetik transmititzen direnek arazo handiagoak ematen dituzte, oso erraz hedatzen direlako. Etorki-zunari begira, noski egongo di-rela birus berriak, jakina. Ez da-kiguna da noiz, nola eta zein izango diren. Horregatik, beti prest egon behar dugu. Beti.